



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-01-13

VILURTEA 1.601 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



JOSEBA ZABALZA

IÑAKI AGIRRE 'GAZTELU' ERREMONTISTA

«Ziurrenik Txapelketa ez nuke jokatuiko Koteto ez balego»

LEITZA Koteto Ezkurrarekin osatu du bikotea Binakako Txapelketan; finala galdu duen arren, gorengo mailan estreinaldi handia izan du 7

%10ean murriztu dituzte aurtengo udal aurrekontuak

IBARRA 5 milioi eurokoa izango da; «inbertsioei eta gastuei dagokionez, ez da aldaketa handiegirik egongo» azaldu du Txelo Romeok 6



Kultur Etxean dagoen erakusketan ikus daitekeen argazkietako bat. HITZA

Etorkin adingabeen errealitatea gertutik ezagutzeko aukera 3



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...



G **Gutunak****Gizonen Elkargunea**

Bihar, hilak 14, 20:00etan, Kultur Etxean, bilera bat izango da Emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta berdintasunaren aldeko Elkargunea eratzeko. Taldearen sustatzaileak gara (ordenamendu alfabetikoz): Joxe Mari Arakama, Antxon Bandres, Iñaki Epelde, Uli Fernandez, Richard Lopez, Pedro M. Ostra, Jesus M. Penilla, Herme Sagarna eta Javier Zurutuza.

Dagoeneko, egin dugu bilera bat edo beste eta baita Elkargunearen helburuak zehazten hasi ere: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu eremu guztietan (legeria, lan-egoera, egoera soziala, familia, hezkuntza...), bereziki, emakumeen diskriminazioari aurre eginez; Indarkeria eta beronen legitimazioa baztertzeara arazoak eta gatazkak konpontzeko, eta, horien ordez, bakezko bideak eta elkarriketa sustatu; Lan

egin genero-indarkeria ezkutuan edo oharkabeen gera ez dadin; Konplizitate positiboan oinarritutako harremanak aurkitu, beste maskulinitate erak bilatu eta garapen pertsonala eragin; Aldaketa eragin gizonengan: berdintasunaren alde, ohiko eredu maskulinoa eredu puskatzeko, ibilbide hori denon mesederako delakoan gaudelako; Gizon berdintasun zaleen taldeak eta sareak eratzen lagunduz, besteak beste, esperientzia eta informazio trukerako.

Berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduak 70ko hamarkadan eman zituen bere lehen urratsak herrialde nordikoetan eta Estatu Batuetan. Espainiako estatuaren 1985ean sortu ziren lehenengo goeta-taldeak, Valentziar eta Sevillan, hain zuzen. Gipuzkoan ere baditugu: Donostian, Zarautzen, Getarian, eta, hemendik aurrera, Tolosan.

Prestbazaude, etorri.
Jesus M. Penilla. Tolosa.

4-1 galdu du Laskorainek Izkepot taldearen aurka

Areto futbolak » Aurkari atezainak geldialdi ugari eragin zituen; hurrengo partidaren garaipena lortzea garrantzitsua izango da.

ERREDAKZIOA

Denboraldiko irteera zailenarekin eman zion hasiera Laskorainek 2009 urte berriari, izan ere Nazional B mailako talde nagusien arteko den Laudiooko Izkepot izan zuten aurkari Alonsoren mutilek joan den asteburuan. Tolosarrek ez zuten punturik batu, 4-1 galdu baitzuten.

Bi taldeak, dena den, parekatu iribili ziren, 40 minutuetan zehar. Arabarrak izan ziren markagailuan aurretik jartzen lehenak, lehenengo minutuan, hain zuzen ere.

Emaiza horrekin amaitu zen lehen zatia. Bigarren erdian, Alonso entrenatzaileak erroak aurrera bota zituen presio etengabean aritzeko aginduarekin eta gol aukera argi bezain ugariak sortzen hasi ziren etxeko atezainaren aurrean. Baina, horrek ez zuen emaitza edo eragin handiegirik izan arabarren gain.

Ezin baloia sareratu

Atezainak batzutan, zutoinak zein hutsigitu argiek besteetan, horitxoak «bere onetik» ateratzea lortzeaz gain, arerioa indartu zuten «futbolearen horrenbeste barkatzeak dakarren ondorio ezagunari esker». Markagailua berdintzeko azken saiakera batean, Gilen jaurtiketa batek ateko langa gogor jo zuen golak egina zirudienean, eta hurrengo jokaldian etxekoek 2-0-koa erdietsi zuten. Une horretan,

partida amaitzeko 3 minutu besterik ez ziren geratzen, eta bigol sartu behar zituzten tolosarrek partidari buelta eman nahi bazioten.

Alonso entrenatzaileak atezain jokalaria atera zuen orduan. Partida irabazterik ez zuten izan tolosarrek, eta 4-1 izan zen azken emaitza. Telleria izan zen laskoraindarraren golaren arduraduna. Laudion Javi delegatua, Alonso entrenatzailea, Endika, Telleria, Telletxea, Murgi, Gil, Barriola, Saldias, Ekhi, Amatriain, Joniko eta Domentxe izan ziren jokatu zutenak.

Jokoan nabaritu ez bazen ere, lehiaketan izan zen gaituta taldea. Aste honetako partidari dago-kionez, Elorrio hartuko dute Usabal kiroldegian. Garaipena lortzea garrantzitsua izango litzateke tolosarrentzat lehenengo itzulieri amaiera ahalik eta hobekien emaitzeko.

Eguberrien osteko lehen partidaren, porrota Bidebide taldearentzat

Saskibaloia » Durangoko Tabirako taldea nagusi izan zen; hurrengo partida Gastizko UPVren aurka jokatu dute tolosarrek.

ERREDAKZIOA

Eguberrietako atsedendaldia igaro, eta larunbatean jokatu zuten Bidebide Ibiza saskibaloia taldeak, lehen partida, Usabal kiroldegian, Durangoko Tabirako Baque taldearen aurka. Junior taldearen bidea jarraitu nahi zuen talde tolosarrak baina, ez zen horrela izan, eta azkenean, 70-77ko emaitzarekin galdu zuten.

Larunbaterako baja bakarra Joseba pibota izan zen. Taldea ia osorik zegoela garaipena eskuratzea zuten helburu, baina aurkariak maila ona eman zuten, argi erakutsiz sailkapeneko postua ez datorela bat duten kalitatearekin.

Bidebide Ibiza 70
Tabirako Baque 77

■ **Bidebide.** Hasierako bostekoa: Goar (30), Haritz (5), Mikel Txiki (4), Lakun (0) eta Ion (8). Kike (9), Mindegia (8), Kaiet (6), Iñigo (0), Martia (0) eta Unai (0).

■ **Tabirako.** Hasierako bostekoa: Menika (20), Arteaga (6), Igarza (2), Astorkia (19) eta Agirre, M. (6). Onaindia (4), Aresti (6), Agirre, J. (7), Unamunzaga (4), Larrañaga (3) eta Gonzalez (0).

■ **Partzialak.** 16-18; 9-13; 13-23; 32-23.

Partida erdi lo hasi zuten etxekoek eta kanpotarrak aldentzen hasi ziren, 5-12 aurreratu ziren arte. Baina, etxekoek ahalegin txiki bat eragin zuten, eta lehen laurdena bi puntu atzetik sartzea lortu zuten 16-18.

Bigarren eta hirugarren laurde-

nak «benetako amesgaiztoa» bihurtu ziren Jimmyk zuzendutako mutilek. Nahiz eta ahalegin guztiak eragin ez zuten saskirako bidea aurkitzen eta behin eta berriro baloia uztaikit ateratzen ziren sartu nahiko ez balute bezala.

38-54ko emaitzarekin iritsi ziren azken laurdenera, eta etxekoek «sekulako ahalegina» eragin zuten markagailuari buelta emateko Goaren eskutik. Markagailuan gauzak estutzen ari zirela 64-68 epailek etxekoek teknika bat egotzi zuten eta beraien esperantza guztiak hor amaitu ziren. Handik aurrera nahi eta ezin bat izan zen, eta azkenean, 70-77koarekin amaitu zen partida.

Bestalde, hurrengo partida erabakiorra izango da Bidebidearentzat. Gasteizen jokatu du UPV Alavaren aurka. Partida hau irabazten duenak aurrerapauso handia emango du igogera fasean sartzeko.

Lidergoa galdu du Tolosak, berdinketa erdietsi ostean

Futbola » Mundarro taldearen aurkako partida 2-2ko emaitzarekin amaitu zuten; Anaitasunaren aurka dute hurrengoa.

ERREDAKZIOA

Azken asteetan lehenengo postuan mantendu da Tolosa preferente mailako sailkapenean, baina aste honetan hainbeste desiraturiko postua galdu dute. Izan ere, tolosarrek berdinketarekin konformatu beharra izan zuten Mundaroren aurkako partidaren. Eta orain arte bigarren postuan zegoen Hondarribiak garaipena eskuratu ostean, Tolosa aurreratu ahal izan du. Hondarribiak 33 puntu ditu, eta Tolosa bigarren postuan dago puntu bat gutxiagorekin. Aloña Mendi eta Aretxabaleta dituzte hi-

rugarren eta laugarren postuetan, hurrenez hurren, 31 punturekin.

Tentsio handiko partida izan zen Mundarro eta Tolosaren artekoa. Etxeko taldea, hau da, Mundarro izan zen aurretik jarri zena, eta bi gol aurretik jartzea ere lortu zuten. Tolosarrek partida berdintzea lortu zuten, izan ere, bigarren zatian jaun eta jabe izan ziren, aukera gabriak sortuz. Baina ezin izan zuten gehiago eragin, eta azkenean puntu bakarrekin bueltatu beharra izan zuten etxera, 2-2koarekin amaitu baitzen.

Hurrengo partida etxean jokatuko du Tolosak Anaitasuna taldearen aurka. Berriro ere lider postua eskuratzeko izango da Tolosaren helburu nagusia. Horretarako juntsxezkoa izango dute tolosarrek aurkariak irabaztea, eta Hondarribia liderraren emaitza ere erabakiorra izango da.

H **Hilberria****JUAN BEGIRISTAIN ARTZAMENDI**

(Joxan gure lankidearen aita)

Maizpide eskualtegiak bat egiten dugu familiarekin une latz hauetan.



Hileta-elizkizuna gaur, asteartea, izango da Atau San Martingo elizan, arratsaldeko seieta

LAZKAO
2009ko
urtarrilaren 13a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Etorkinak bai, baina azken batean umeak

Gizartea » SOS Arrazakeria elkarteak etorkin adingabeen errealitatea erakusten duen argazki erakusketa jarri du ikusgai, Kultur Etxean.

ESTI EZEIZA

SOS Arrazakeria elkarteak antolatu ikusgai da Kultur Etxean *Geureak ere badira adingabe horiek* argazki erakusketa. Herriz herri dabilen bilduma honek adin txikiko atzeritarren errealitatea ezagutzera eman nahi du, estereotipoak eta aurritziak bazter batera utziaz.

SOS Arrazakeria elkarteak duela hilabete batzuk ikusi zuen, lagundu gabeko adingabe etorkinekin zenbait arazo zeudela, eta hauek nondik zetozen, zein arrazoirengatik eta zer helbururekin, jendeari azaldu beharra zegoela. Urrian hasi ziren ekimenarekin, eta erakusketa, adingabeen zentro berriak kokatu diren herri eta hirietara eraman dute. Esaterako, Ormaiztegi, Legorreta eta Tolosara.

Tolosan bi lekutan ikusteko aukera izango da. Alde batetik, hilaren 18ra arte, Kultur Etxean. Bisiten ordutegia ondorengoa da: 09:00etatik 22:00etara. Bestalde, hilaren 20tik 28ra Errota Haur Liburutegian egongo da jarrita. Hara, arratsaldetan bakarrik joan ahal izango da, 17:00etatik 20:00etara. Honez gain, hilaren 16an eta 23an, 19:00etan, SOS Arrazakeriaren eskutik bisita gidatuak izango dira, bertara hurbiltzen direnentzat. Saio hauetan, elkarteak kideekin batera izango dira bi adingabe etorkin ere, beraien istorioa eta bizipenak lehenengo pertsonan kontatzeko.

Erakusketan, argazki bidez, adingabeen testigantzeekin eta egunkarietako titularekin etorkin edingabeen fenomenoaren inguruko ikuspegi ezberdinak biltzen dira. Bereziki marokoarren inguruarri mintzatzen dira bertan, jatorri horretakoak baitira honaristen diren adingabe gehienak. Adingabeek egiten duten ibilbidea zehazkatzen du erakusketak.

Aurritzi ugari

SOS Arrazakeria elkarteak kide den Anna Stern-en hitzetan, «komunikabideetan behin eta berriz agertzen dira etorkin adingabeek egindako delituen inguruko albisteak, eta egia da gertatzen direla, baina alderantzizko ekintzek, hau da, integratzen saiatzen direla erakusten dutenek ez dute oihartzunik izaten». Izan ere, badaude ma-

rokoar gazteak, hona etorri direnak, ikasketak burutu dituztenak, eta egun bizipen baikorrak dituztenak.

Bide luzea egin behar, hona iristerako

Euskal Herriratzten diren adingabe etorkin gehienak Marokotik etortzen dira. Hauetako batzuk denbora asko igarotzen dute plana egiten, horretarako, lehenago etorri direnekin hitz egiten dute eta beste hainbat datu biltzen dituzte. Ia denak, pateretan, kamioi azpitan edo polizoi gisa etortzen dira. Behin, Espainiara iristean adingabeak direla baieztatzen bada adingabeen babeserako sistematik igarotzen beharra daukate. 18 urte baino gutxiago izatean, baldintza hau besteen gainetik jartzen da, baita etorkin izatearenetik ere.

Adingabe bat hona iristen denean, lehendabizi erregistratu egiten da artxioban. Agiririk ez baldin badaramate gainean eskumuturraren froga egiten zaie ea benetan 18 urte baino gutxiago dituzten baieztatzeko. Horrela bada, adingabeen harrera baliabideetara igarotzen dira, gainontzeko adingabeak bezala. Honenbestez, froga epealdi bat egoten da gero, tarte honetan baieztatzen da ea Foru Aldundiaren eskuetan geratuko den gaztetxoaren tutoretza. Hala, gaur honetan, larrialdetarako zentro batean egoten da eta balorazioa baikorra denean, zentro arrunt batera eramaten da.

Legez adingabe bezala hartu behar ditu legeak, baina aldi berean, kontuan izan behar du, etorkinak ere badirela. Honen inguruan, Anna Spernek dio hori dela askotan arazo nagusia, adingabe izatearen baldintzaren aurretik jartzen dela etorkin izatearena. Bestalde, gaineratzen du, beste batzuetan, 18 urte egin arte zaintzen direla, baina adin horretara iristean, emantzipatzeko baliabiderik ez dutela, ez eta agiririk ere. Horregatik, bere iritziz, «alferrik dela adingabeen babesean dirua igortzea, gero irtenbiderik ematen ez bazaie». Agiriak lortzeko zehaztuta dauden zenbait prozesu jarraitu beharra daukate gaztetxoek. Baina SOS Arrazakeriakoen ustetan, «askotan helburua ez da hauek integratzea, gainetik kentzea baizik, arazo gisa ikusten baitira».



'Geureak ere badira adingabe horiek' izenburupean ikusgai da erakusketa Kultur Etxean, hilaren 18ra arte. E. EZEIZA



Bizi hobe bat aurkitzeko itxaropenarekin alde egiten dute adingabe hauek beraien herrialdetik. E. EZEIZA



Asko eta asko, pateretan etortzen dira. E. EZEIZA



Lana aurkitu eta bizi aurrera ateratzeko nahia dute. E. E.



Adingabeak direnez, ikasteko aukera eskaintzen zaie. E. E.



Etorkinak integratzea da helburuetako bat. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxea.** Lekunberrin lau logelako etxebizitza. 104 m². Lehen solairuan eta berogailuarekin. 480 euro. Deitu 636 17 16 24ra.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. 637 23 00 11 edo 634 91 94 82.

Tolosaldeko komunikazio enpresa batek KUDEATZAILEA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), hainbat eragileekin izan beharreko harremanen kargu egingo den pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-Administrazio arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa dutenek curriculuma bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, urtarrilaren 20a baino lehen. JARDUNA S.L. Giza Baliabideak Saila - Martin Ugalde Kultur parkea - 20140 Andoain Erreferentzia: THHK209

E Elkarrizketa**TXENTE REKONDO** ▶ Nazioarteko analista

«Gizarte mailan oso zabalak dira globalizazioaren dimentsioak»

Villabona ▶ Txente Rekondok 'Kapitalismoa eta globalizazioa' hitzaldia eman zuen atzo Aritza Kultur Tadeak antolatutako jardunaldietan.**IMANOL GARCIA**

Txente Rekondo (Donostia, 1965) nazioarteko analista da. Munduan zehar hainbat herri eta estatutan izan da, bertako errealitatea hobeto ezagutzen. Kolaborazioak egiten ditu hainbat komunikabideetan eta hitzaldiak ematen aritzen da ere. UEUn urtero ematen diren zenbait ikastaroetako zuzendaria izaten da. Aritza Kultur Taldetik *Ekonomia eta krisia Euskal Herrian* gairen inguruan antolatutako duen hitzaldietako bat eman zuen atzo, Mintzolan, *Kapitalismoa eta globalizazioa* izenburupean.

Gai zabalak jorratu duzu hitzaldian.

Ardatz nagusia izan da globalizazioaren argazkia egitea, horrekin batera nazioarte mailan eman diren aldaketak ordena berriarekin. Bestetik, munduaren beste aurpegi batzuk azaldu nituen nolabaitko oreka bat bilatzeko hitzaldian. Bukatzeko, estatu gabeko nazioak horrelako puzzle batean nola kokatzen diren.

Zein da egiten duzun globalizazioaren argazkia?

Hasteko, globalizazioa ez da gauza berria, nahiz eta modan jarri azken bolada honetan. Hiru bultzakada nagusi izan ditu historian zehar. Alde batetik, Amerika inguruan eman zen konkista eta kolonizazioa. Gero Iraultza Industrialak dator eta XIX. mendean zehar ere kolonizazio prozesua zabalzen da munduan zehar. Hirugarren bultzakada izango zen Bigarren Mundu Gerraren ostean zer nolako aldaketak izaten diren bai ekonomiaz, bai komunikabideen aldetik ere. 70. hamarkadaren ondorioz hau guztia azkartzen joaten da.

Zein dira egungo globalizazioaren ezaugarriak?

Garapen teknologikoa da egungo globalizazioaren ezaugarri nagusietako bat. Ordenadorearen presentzia oso adierazgarria da. Enpresa mailan gaur egungo produktzioa beste mota batekoa da. Gizarte industrialean baino, informazioaren gizartean gaude. Horrekin batera, eta enpresei lotuta ere, multinazionalak azaltzen dira lehenengo planoetan. Beste ezaugarri nagusietako bat, bizi dugun ordena berria, hau da, 1989. urtean erortzen da Berlingo Harresia eta Soviet Batasunaren esparru ohia ere desagertzen da eta, beraz, bipolarismo batetik unipolarismo batera pasatzen da. Gero globalizazioarekin batera, ongizatearen estatuaren porrota edo krisia agertzen da eszenatoki berri honetan.

Zertan nabaritzen da gizartearen baitan?

Badaude faktore batzuk globalizazioaren garapena bultzatzen dutenak eta normalean pribatizazioak, desregulazio finantzieroak, enpresen arteko fusioak... ikusten dira. Egungo globalizazioaren dimentsioak ezin dira bakarrik arlo teoriko batean kokatu. Gizarte mailan oso zabalak dira dimentsioak. Alde batetik neoliberalak dela: kapitalismo basatia, desorekak bai estatu batzuen barnean eta baita estatuaren artekoen artean. Globalizazioa politikoa eta ideologikoa da berez. Bada ere globalizazio kulturala: kultur bakarra eta homogeneoa saltzen da gero eta gehiago, normalean Estatu Batuetatik bultzatutakoa. Baita ere finantzieroa da: azokak, espekulazioa, diru mugimenduak... Azken bolada honetan ikusten dugun krisia oso lotuta dago eredu honekin. Badago dimentsio teknologikoa, informatika eta telekomunikazio-



I. GARCIA

ekin lotuta. Eta bukatzeko, informazioak ere pisu nahiko garrantzitsua du.

Gero eta informazio gehiago dugu esaten da.

Inoiz baino bide gehiago ditugu informazioa jasotzeko, baina hor tranpa badago. Ez digute uzten denborarik filtro bat egiteko. Emanen digute informazioa, informazioa eta informazioa, baina ez daukagu ahalmenik, edo denborarik edo aukerarik informazio hori filtratzeko eta denak dakigu zer informazio mota jasotzen ditugun.

Non ikusten dira globalizazioaren eraginak Euskal Herrian?

Deslokalizazioak gero eta nabaria- goak dira. Eraikuntza mailan zertanola tirabirak izaten diren, adibidez lan hitzarmena aplikatzerakoan bertako eta kanpoko den kontuan hartzea, langileak espreski kanpotik etortzen dira obra jakin batzuk egiteko. Eroskiren ka-

sua ere hor dago, gero eta presentzia handiagoa du Estatu Espainoan eta Iparraldean ez da azaltzen. Ia gehienak gaztelaniaz edo frantsesez dira, zer eredu mota ematen diguten horrelako komunikabideetatik...

Alde onik badu globalizazioak?

Alternatibak ematen ditu, ziur aski nahigabe. Jende askori ere teknologia berrien erabilpena oso erraz jartzen zaie mahai gainean. Bultzatzen da nazio mailan tokiko ikuspegia homogeneizazio hori apurtzeko.

Egungo ordena berriaren ezaugarriak zein dira?

Niretzat gakoak da egun unipolarismo uniformante baten aurrean gaudela. Hau da, bipolarismoa amaitzen denetik, ikusten dugu nagusitasun globala Estatu Batuen eskutik dagoela. Baliabideen esplotazioa militarik egiten da behin eta berriro. Ahalmen militarra

gehitzen da izugarri. Eskuhartzeko unilaterala ematen da, eraso prebentiboa, logika inperila... Horrekin batera bake amerikarra: kultur eredu bakarra, diplomaziaren erabilpena, ekonomiaren kontrola eta militarismoa, azken hau ulertuta industria bezala eta era berean estrategia bezala. Bukatzeko, interbentzionismoaren garrantzia gaur egungo egoeran. Honekin lotzen dugu manipulazio informatiboa. Bestalde, esaten da mundu honetan aktore batzuen presentzia gero eta handiagoa dela: Txina, India, Brasil... Horrekin badirudi oreka bat jarri nahi dutela batzuek mahai gainean.

Beste aurpegi batzuk ere azaldu dituzu hitzaldian. Zeintzuk?

Globalizazioaren aurkako mugimenduak, hauen baitan dauden eztabaidekin. Islama ere irakurketa politikoko batetik ere beste aktore bat bezala hartu behar da. Herri indigenak, askapen nazionalerako borroka, polo estatal berriak (Hegoamerikan sortzen ari direnak esaterako), beste borroka munduan zehar ematen direnak normalean ez direnak azaltzen medioetan, eta gero mugimendu sindikalaren pisua edo protagonismoa horrelako argazki berri batean.

Zer azaldu duzu estaturik gabeko nazioei buruz?

Ere mu horretan azken urteetan egon diren esperientzien berri eman nuen: Montenegro, Kosovo... Montenegro galdeketa erabili zen eta adierazpen unilaterala Kosovon. Nazioarte mailan onarpena ia orokorra izan da, nahiz eta Kosovon askok atzera egin. Belurrik eta zalantzak estatu-nazioen aldetik sortzen dira horrelako errealitateekin batera. Esan beharra dago autodeterminazio esku bidearen inguruan teoria eta mahai inguruak aldatu direla XIX. mendetik hona. Olatu ezberdinak izan dira historian zehar autodeterminazioaren inguruan eta horrekin esan nahi da posible dela, mugak ez direla aldaezinak, ezta Europar bertan ere. Eta salatu behar da gaur egun dauden neurtzeko modu ezberdinak. Estatu frantziarraren papera, adibidez, onartzen Kosovon, baina ukatzen Euskal Herria edo Korsika edo Britainia.

txokoa

5 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!

ZER DUZU NEGARREZ, MARIE?

Haurrentzako antzerkia

Urtarrilak 17 • Larunbata
17:00etan • Tolosako Leidorren

2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta
eskuratu!Urtarrilak 23
Ostirala
20:30ean
Tolosako Leidorren**ANTZERKIA**

Amezketan UEMA sartzea erabaki dute aho batez, ohiko bilkuran

Amezketan » Tolosaldea Garatzeneko bazkide izango da ere; «Larraitz-Bideko etxebizitza tasatuak aurki hasiko dituzte».

ERREDAKZIOA

Amezketan egin den azken ohiko bilkuran, Udalak UEMAko estatutoak eta kide eta onartu du denen aldeko botoekin. UEMAko ordezkaria izendatzea falta da eta «estatutoen arabera zinegotzia izan behar da». Hurrengo ohiko bilkurarako utzi dute erabaki hau.

Tolosaldea Garatzeneko bazkide izango da Amezketan ere. Momentu honetan Amezketan bakarrik dago elkarte honen kanpo Tolosaldean. Honetarako, 300 akzio erosi beharko ditu Udalak balio nominala osotara 1.803 euro delarik eta baita lutzatzeko zenbatekoaren balio gutzia ere, 12.385,29 euro, hain zuzen. 5 baiezko etabiabstenziorekin onartu egin zen.

Landagipuzkoa 32ri baiezkoa

Arau berritzaileen aldaketan espedientearekin lotuta honakoa proposatu zuten: arau berritzaileen aldaketei hasiera ematea, baina ez dute onartu oraindik, lau ezeko botoekin. Arau hauek honakoetan eragingo lukete: Ola auzoan urbanizazio lanak egiteko garaian, San Bartolome kalean kultura erabilerarako izango den zerbitu egiteko garaian, eta urbanizatze garaian arauak zertxobait aldatzean (ordenantzetan). Esaterako, honen baitan, etxebizitzak solairu baxuetan egiteko aukera emateko arauak egongo lirarteke.

Landagipuzkoa 32 eraikin edo azpiegitura balioanizten proiektu



2007ko udaberrian jada Larraitz Bideko etxebizitza tasatuak egingo zituztela jakitera eman zuten. Aurki hasiko omen dituzte obrak bertan. N.U.

tuetarako diru laguntzak eskatuko dituzte denen aldeko botoekin. Landagipuzkoa 32 egitasmoak 1.000 biztanlelik beherako herriei garapenerako laguntzak ematen dituzte. Amezketako gaur egungo beharrik aztertu ondoren, base-errietako bideak eta azpiegiturak hobetzeaz gain, «beste gabezi garrantzitsu bat badela somatu dugu, erabilera anitzeko herri zentro bat».

Horregatik, Landagipuzkoa 32 programaren barruan dauden Gipuzkoako udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztuetarako 2.674.632 euroko aurrekontua eskatuko dute.

Amezketako Irisingarritasun Planarekin Amezketako 3 entitateetako (Amezketan, Ugarte, Ergoiena) eremu publikoetan plana aplikatzea lortu nahi da, baita eraikuntza publikoetan ere. Irisingarritasun Plan hau Adir enpresari esleitzea proposatu da, haren 13.920 euroko aurrekontua aztertu ondoren.

Batzordeen informazioa

Kanposantura doan bidea estuegia denez, metro batean bide hau zabaldu behar dela planteatu zuten AEL taldekoek, Lurdes Larreta eta Agustín Artola zinegotziak. Kimu Berri taldeak onartu zuen egokia litzatekeela, «baina eremuak duen aprobatxamentua kontuan hartuta, neurri hori desproporzionatua litzateke». Beraz, aparkalekuak jabeak egitea eta lursailak etorkizunerako zeditzea planteatu zuten Kimu Berriak. Dena den, hurrengo pleinora gaia eraman aurretik, teknikari berriekin gaia aztertzea adostu zuten.

Larraitz-Bideko eremuko promotoreek proposamen ezberdinak planteatu zituzten Udalarri, «baina badirudi azkenean, epe laburrean etxebizitza tasatuen eraikuntza eraikitzen hasiko dela». Urbanizazioa nola bukatu eta noraino lizentziarekin edonolabait lotuta utzi behar harko adostu zen. Arkitektoak dimititu egin duenez, berria zein izango den erabaki ahal izateko, Lurdes Larreta eta Agustín Artola

zinegotziak proposamen bat egin zuten eta Kimu Berriak bi proposatu zituen. Hiru arkitektoekin harremanetan jarri eta proposamen ekonomikoa eta curriculuma eskatzea adostu zen.

Lokalen faltan

«Herri baten eskaera daukagu, bere aktibitatea aurrera emateko lokal baten beharra daukala, eta Udalak badaukan laguntzerik esanez». Horrez gain, 12-18 urte arteko 20 gazteek lokala eskatu dute. Erantzun zaie Udalak ezin diola

Arkitektoak dimititu duenez, hiru proposatu dituzte eta hurrengo egunetan erabakiko dute

bakoitzari lokal bat eskaini. Momentu honetan beste bi talde daude lokal banarekin eta hiru taldeen artean hitz egiteko batzeko eta lokal bat bakarra erabiltzeko. Udalak ere lagunduko luke lokala bilatzen eta mantentzean.

Egutegia eta liburuxka bat egiteko asmoa dago: liburuxka honetan herriko ibilbide batzuk azalduko dira, herriaren dauden zerbitzuak (tabernak, lo egiteko lekuak, gastronomia eta ondarea).

Enirio-Aralarren urteurrena

Enirio-Aralarko Mankomunitatearen 600. urteurrena ospatzen denez, zenbait aktuzio egin nahi dira eremu honetako herrietan: Amezketan mendirako aparkalekua egin, Bedaion etxebizitzak... 600.000 euro daude zenbait ekitaldi egiteko mankomunitateko sarrera bilakatzen diren herrietan (Amezketan, Baliarain, Ikaztegieta eta Orendain).

tzen dituzten lau lokaletatik hirutako ateetako sarrailak bortsatu zituzten, baina ez zuten ezer eraman handik. Larunbatean prentsaurreko ireki bat eskainiko dute.

» KRONOLOGIA

- **2006ko azaroaren hasieran.** Gaztetxean sartu eta kaxan zegoen dirua eraman eta ateak bortsatu zituzten.
- **2006ko azaroaren bukaeran.** Ondoko lokal batean ere lapurretan egitea egotzita, lagun bat atxilotu zuen Ertzaintzak Tolosan.
- **2008ko otsailan.** Miaketa edo lapurretan saiakera izan zen. Elkarretaratzea ere egin zuten.
- **2008ko Eguberrietan.** Atea behartuta, sartu, hormak txikitu eta dirua ostu zuten.
- **2009ko urtarrila hasieran.** Eraso berriz ere Gaztetxean.

Anoetako Gazte Asanblada: «Erasoa jasan dugu berriz ere»

ERREDAKZIOA

Anoetako Gazte Asanbladak berriro lapurretan-erasoa jasan duela salatzen du. Gaztetxean zein ondoko lokaletan gertatu dira lapurreta. «Nazka-nazka eginda gaude eraso hauen aurrean», diote. Gaztetxean ez ezik, ondoko lokaletan ere izan dira lapurreta.

Gertaera ostirala eta larunbata bitarteko gauean izan zen. Ez dira pasa 15 egun aurreko lapurretak jasan zutenetik. Gazte Asanbladak adierazi duenez, «ez dute lortuko gazteria geldiaraztea».

Gaztetxe barruko biltegiko atea hautsi eta bertan zegoen dirua eraman zuten, eta musikariekin erabil-



Ate nagusiko sarraila ere bortsatu dute oraingoan. HITZA

Laburrak

Hilabete bat, zabor bilketaren tasa ordaintzeko

IKAZTEGIETA » 2008ko bigarren sei hilabeteko zabor bilketa tasari dagokion errolda onartu dute Ikaztegieta. Ordaintzeko epea otsailaren 12an bukatuko da, hau da, hilabete bat barru.

Hauteskundeetarako hautesle zerrenda ikusgai

IKAZTEGIETA » Datorren martxoan izango diren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak direla eta, hilaren 19ra bitartean hautesle zerrenda jendaurrean ikusgai izango da Ikaztegieta. Ordutegia goizez izango da, 09:00etatik 15:00etara, hain zuzen ere, udaletxean bertan.

Intxurreko lurraldekakoek garaipena lortu dute

ALEGIA » Asteburu honetan Intxurreko lurraldekako bigarren mailako mutilek irabazi egin dute Irunen kontra. 3-2ko lortu dute etxean. Orain, Oiarzun B-ren kontra lehiatuko dira hurrengoan. Momentuz 6. dago saikapen nagusian eta bi partida jokatu dituzte.

Telefonoak

Larrialdia. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Akiza-Hernialde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldea bus: 943 650621
Leiztaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



San Inazio auzoko zubia berritzeko 312.000 euro erabiliiko ditu Ibarako Udalak. R. CALVO

Bost milioi euroko aurrekontua 2009rako

Ibarra » Udal gobernuak onartu du jada urte honetarako aurrekontua; izakoa baino milioi bat euro gutxiagokoa da.

ERREDAKZIOA

Ibarako Udalak pasa den abenduan onartu zuen 2009. urterako aurrekontua. Izakoa 6.298.164 eurokoa izan zen eta urte honetarako berri, %10 murriztu dute; aurrekontua, hortaz, 5.168.000 eurokoa izango da.

Ibarako alkate Txelo Romeok esan duenaren arabera, «zenbatekoa murriztagoa bada ere inbertsioei eta gastuei dagokionez ez da aldaketa handirik eman». «Hitzartutako zergak %10 murriztu ditugu eta zergak, batz bestea, %3 bakarrik igo ditugu», gaineratu du. Udalak, era berean, herriko hirigintza-beharrak asetu ahal izateko Eusko Jaurlaritzatik zein Espainiako Gobernutik jaso ahal dituzten laguntza guztiak eskuratzen saiatu direla ere argitu du alkateak.

Horiek horrela, berria ez den egitasmo bat aurrera ateratzen saiatuko dira baita aurrean ere; Egu-

neko Zentroa egitearena, hain zuzen. Egitasmoa ez dute alboratu, baina zentroa egiteko zenbatekoa altuegia denez Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko duen zenbatekoaren berri izateko zain daude oraindik.

Hainbat egitasmo

Aurrekontua gaiez gai aztertuta euskararen arloan Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorrekin jarraituko du Udalak eta argitalpen bat ere aurkeztuko dute; «aurten ipuin desberdinak (Ekuadorrekoak, arabiarrak...) euskaratuta liburua atera dugu eta datorren urtean poesia eta margolanak uztartzen dituen beste bat aterako dugu», esan du Romeok.

Kirolaren inguruan ez dute egitasmo berriak aurrekusi, baina kiroldegian hainbat egokitzapen lan egitea aurrekusi dute. Hezkuntzari dagokionez akordio desberdinak hitzartzen ari dira Uzturpe Ikastola, haurtzandegia, ludoteka eta Loatzo Musika Eskolaren kudeaketa hitzartzeko.

Aurrekontuen zenbatekorik handiena, hala ere, San Inazio auzoko zubia berritzeko erabiliiko dute, hartara iristagarritasuna ere

hobetzeko. Udalak 312.000 euro gastatuko ditu eta Eusko Jaurlaritzaren Uraren Sailak ere zenbatekoaren %50 jarriko du.

Era berean, Hirigintzaren sailan Julian Gaiarre inguruaren egokitzapenak aipatu behar dira. Udalaren lana izango da, baina horretarako Estatuaren Errege Dekretuaren laguntza ere izango du, 700.000 eurotako zehazki. Horrela diru horrekin ingurua egokitzuko dute, argiztapena hobetuz CO2aren igorpenak murrizteko. Izan ere, Udal Gobernuaren aposituetako bat Ingurumen sailari bultzada ematea zen eta horrexegatik sortu zuten Ingurumen Saila.

Aipatu guztiaz gain, Babes Ofizialeko Etxeak egin ahal izateko lursailen erosketetan, kaleko hezitzaileentzako lokala eta bestelako hirigintza egitasmoak egiteko ere diru partida desberdinak onartu dituzte.

Zenbateko zehatzak

Horiek horrela, 2009rako aurrekusiak 5.168.000 euroetatik %24,47 pertsonal gastuetara bideratuko dute, zerbitzuen prestazioak ordaintzeko eta mantenu lanetarako %39,65 bideratuko dute, finantza-aktiboetan %0,08 gastatuko dute, maileguz interesetan %0,56 eta transferentzia desberdinetan %0,63. Era berean, aurrekontuen %23,11 inbertsio erreale-tara (higiezin zaharberritze, eraikuntza edota hobekuntza lanetara) bideratuko dute.

Horrela hauek dira kopuruak: Euskara eta Hezkuntza sailletara 456.890 euro bideratuko dituzte, zerbitzu eta obra lanetara 746.610 euro, Hirigintzan 983.790 euro erabiliiko dituzte, Kultura eta Gaztedia sailletan 435.790 euro, Kiroletan 378.938 euro eta Gizarte-Zerbitzuetan 507.514 euro.

Hasi dira Korrikaren prestaketa lanak

Euskara » Korrikaren ekintzak antolatu dituzte; denda Andoainen dago eta batzordeak osatzeko deia ere egin dute.

herritar guztiak animatu nahi dituzte Korrika batzorde horietan parte hartzera egingo diren jarduerak guztien artean erabaki ahal izateko.

Euskara ikastaroak

Tolosaldeko AEKK euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzako matrikula epea irekia dagoela ere jakinarazi du.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 26an Tuteran hasi eta apirilaren 5ean Gasteizen amaituko den Korrika apirilaren 2an pasako da gure eskualdetik. Horren aurretik, hala ere, hainbat ekitaldi ere izango dira. Izan ere, otsailaren 7an Ander Lipusek zuzendutako *Erregea eta bufoia* antzezlan izango da Tolosako Leidor antzokian.

Bestalde, Korrikak urtero atera ohi dituen mota guztietako jantziak ere jarri dituzte salgai. Korrikako arropa Andoaingo Li dendan dago, Kale Nagusian dagoena, eta bertan egongo da Korrika amaitzen den arte.

Era berean, Korrika batzordeen bilerak ere berehala hasiko direla jakinarazi nahi izan dute eta beraz,

Eskualdeko hainbat herritan dagoeneko euskara taldeak antolatuz zituzten urrian, baina oraindik ere aukera dago talde batzuetan hasteko. Horiek horrela, Irurako astelehenetako, asteartetako eta ostegunetako 15:00etatik 17:00etarako eskolan lekua dago oraindik; Villabonan astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara dauden klaseetan; eta Zizurkilen astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etarako eta astelehenetik ostegunera 15:00etatik 16:30erako taldeetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943 591704 telefonora deitu behar da.

Donostiako Akuariuma bisitatu ahal izango dute datorren larunbatean

Berastegi » Gaztainondok Donostiara irteera antolatu du hilaren 24rako; Akuariuma edo Ontzi Museoa bisitatu dute.

duenak, hala ere, hiriburuko Alde Zaharrean paseatzeko aukera ere izango du.

Bazkaria

Bazkaria Eula Sagardotegian izango da 14:00etan eta bertan parte hartzeko alde aurretik eman behar du izena Erretiratuen Elkartearen bertan. 30 euro balio dituzten bazkariak bazkideentzako eta bazkide ez den norbaitek joan nahi badu 33 euro ordaindu beharko ditu.

Bestalde, Gaztainondo elkarteak podologo hilaren 31n joango dela herrira jakinarazi du. Egin ohi duten moduan podologoarekin bisita nahi duenak elkartearen eman behar du izena.

ERREDAKZIOA

Berastegiko Gaztainondo Erretiratuen Elkarteak Donostiara joateko irteera antolatu du datorren larunbaterako, hilak 24.

10:00etan b.ilduko dira herriko enparantzan eta Donostiako Alde Zaharrera joango dira. Han aukeratu dute nora jo ondoren; Akuariumera edota Ontzi Museora. Ez bata ez bestea ikusi nahi ez

Laburrak

'Germinal' filma eskainiko dute bihar, Gaztetxean

IBARRA » Ibarako Autoeskola Antikapitalista taldeko kideek *Germinal* filma proiektatu dute bihar, asteazkena, 21:00etan herriko Gaztetxean. Emile Zola idazle frantsesaren izen bereko eleberrian oinarritutako filma honetan langile-borrokak da nagusi.

Hilaren 19ra arte daude ikusgai hautesle-zerrendak

IBARRA » Ibarako Udalak jakinarazi duenez, indarrean dauden hautesle-zerrendak jendaurrean ezarrita daude jada eta hilaren 19ra bitarte ikusi ahal izango dira. Epe honetan, hautesle-zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

IÑAKI AGIRRE 'GAZTELU' Erremontista

Leitza » Erremontearen Binakako Txapelketan indar handiz aurkeztu du bere burua Iñaki Agirrek, hala eta guztiz ere, heldutasunetik begiratuta momentua bizi behar dela argi du.

ASIER IMAZ

Binakako Txapelketan Koteto Ezkurrarekin osatu du bikotea Iñaki Agirrek, *Gaztelu*-k (Leitza, 1975). Finala 40-38 galdu zuten larumbatean Urriza-San Migelen aurka. Hala eta guztiz ere, erremontearen gorengo mailan estrenaldi handia eduki du *Gaztelu*-k.

Bigarren geratzea ere ez dago bategere gaizki.

Niretzako emaitza nahiko ona da. Hare hobe Binakako Txapelketa lehen aldiz jokatu eta nire ibilbidea ikusita. Beti bigarren mailako pilotaria izandu naiz, baina aurten aukera bat izandu dut; Ezkurrarekin jokatzekoa. Txapelketan sartze hutsa nahiko positiboa zen. Txapelketa hasieran finala jokatu nuela esango bazidaten, nahiz eta galdu, oso pozik egongo nintzatekeen. Gero finalera ailegatzean irabazi egin nahi duzu, eta gehiago jokatu genuen partida ikusita; irabazteko moduan egon ginen, 37-32 aurretik, baina buelta eman ziguten eta pena, azkenean pena handia.

37-32: Txapela eskuan ikusial zenuen?

Esku artean ez da inoiz ikusten, nahiz eta gero egunkarietan «irabazia genuela» eta horrelakoak irakurri ditudan. Partida garaipenera nahiko zuzendua genuen baina hirurik horiek beti egin behar izaten dira.

Zuek aurreratzea lortzen zenuteanean euren erantzuna iristen zen. Amaieran bost tantoko alde izan arren, zalantzak.

Tentsio handiko partida izandu zen. Final batean joku ikusgarria baino tentsio handia izaten da. Markagailuan nahiko berdindurik ibili ginen baina bost tanto horiek momentu oso erabakigarrian lortu genituen. Ia 40ean zaudete 37-32 batekin. Normalean, 100etik 75-80 partida, 37koak irabaziko ditu. Guk normal jarraitu genuen jokatzeko eta eurek suertea ere izandu zuten. Urrizak pilota benetan zaila eraman ostean berak egin zuen tantoa; beste batean Koteto eta biak hirurik edo lau pilotakada txapetik zentimetro batzutarra jo zituzten eta azkenean Urrizak tanto egin zuen suertez; azken sakan er pilotak bote txarra egin zuen... Azkeneko zortzi tantotik lau suertez egitean... horrela etortzen dira bueltak.

Lehen final handi baten aurrean nola ikusi zenuen zure burua?

Ongi. Ni nahiko gustura sentitu



JOSEBA ZABALZA

«Koteto ez balego seguraski ez nuen Txapelketa jokatu»

nintzen. Hasieran beti nerbio pixkat izaten da. Nere lana banekien aurrelariari kentzea zela eta Kotetok uzten zituenak alden heinen frontisean jartzea. Gero erreboten nahiko txukun ibiltzen naiz eta errebotek eraman behar nituen. Beti izaten da finaleko tentsio hori, baina egia esan behar baldin badut nerbioetatik ez nuen bate akusatatu.

Kotetorekin jokatzek ere presioa sortuko du. Akats gutxi egingen saiatzea...

Bai, hori beti. Presio hori beti izaten duzu. Azkenean zure maila ematen baldin baduzu, nahiko

berdindua ateratzen da partida. Denek ematen baldin badute bere maila gertatu zitzaiguna gertatzen da. Zure maila ez baduzu ematen, oso nabarmen gelditzen zara. Beste maila bateko pilotaria izanda beti akatsak oso nabarmenak gelditzen dira.

Txapelketa guztia kontuan hartuta maila ona erakutsi duzu.

Bai. Txapelketarekin oso gustura nago, nahiz eta irabazita oso gozura izango litzatekeen. Hasieratik pausoz pausoz joan gara. Finalerdietan sartzeko bi partida irabazi genituen, bertan nahiko aurkari

gogorrak genituen: Zeberio eta Agirrezabala. Aurreneko partida erraz irabazi genuen baina bigarrena erraz beraiek irabazi zuten. Hirugarrenean 39na egin genuen eta azkenean tanto batez irabazi genuen. Hor ikusten da finalerdien gogortasuna. Finalean sartu ginenen pozik, irabazi egin nahi duzu eta...

Txapelketako une gozoena hirugarren finalerdiko azken tanto hura, garaipena eman zizuena.

Ez dakit momentu gozoena den baina bai, tanto hori egiten duzunean asko disfrutatzen duzu. Beste

momentu batzuk ere egon dira; partidaren zehar ongi jokatzeko zure buruarekin seguru sentitzen zarenean, nahiko momentu gozoak bizitzen dituzu. **Koteto Ezkurrarekin osatu duzu bikotea, erremonteko mito batekin.**

Bai. Kotetok azken 14 urtetan diferentzia markatu du erremontean. Zeberio II.ak oso oso gertutik segitzen dio, baina oraindik ere Kotetok markatzen ditu diferentziak. Berarekin jokatzeko abantaila ikaragarria daukazu. Koteto ez balego seguraski nik ez nuen Txapelketa

«37-32 batekin, normalean 100etik 75-80 partida, 37koak irabaziko ditu»

«Horrelako buelta bat ez da normala izaten, ondo jokatzeko ari zarenean gainera»

jokatu, berak ematen duen mailagatik eta abantailagatik izan dut aukera.

Finala amaitu ondoren zer esan zizun aldageletan?

Gauzak horrela izaten direla. Horreko buelta bat ez dela normala izaten, ondo jokatzeko ari zarenean gainera, suerte puntu bat behar da horretarako eta beraiek oso bukaera ona egitea.

Lehen mailan aukera eman eta finalera heldu. Hemendik aurrera?

Hemendik aurrera zer gertatuko den edo aukera gehiago emango ote dizkidaten, horrela ezin dut egon. Ia 33 urte dauzkate eta normalean aukerak gazteak izaten ditu. Ailegatzen denean momentuan aprobetsatu behar duzu. 20 urte banitu, berriz Txapelketan noiz sartuko nauten edo hurrengo zein izango den pentsatzen egongo nintzen, baina erremontean heldutasuna hartuta dudala uste dut; eduki dut aukera bat eta beste bat baldin badago ongi gero irria izango da.

'Gaztelu' ezizena nondik dator?

Familiarengatik. Ziur ez dakit gure berrattona ote zen baina kontua da lehen *Gaztelu* bizi zirela. Bertatik Leitza eta etorri ziren bizitzera eta geroztik *Gaztelu* eta *Gaztelu*. Lehen orain baino ohitura handiagoa zegoen, beste herri batetik bazentzen herriaren izenarekin gelditzen zinen, guri horrelaxe gelditu zitzaigun.

Eta erremontista izatearena?

Nik banuen pilotarako afizioa, baina Leitza bazen beste erremontista on bat; *Zestau*. Gero lagun bat ere banuen erremontean ibiltzen zena. Erlazio handia nuen honekin eta behin Galarretan, hasi behar genuela, agian ni ere hasiko nintzela... Saski zahar bat banuen etxean, aitaren bi lagunek musean irabazitakoa eta haiek utzi zitadaten saskia, horrelaxe hasi nintzen.



8°
4°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
LAINOTUA
8°
3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosaldea.** Abian da Sahararen aldeko Euskal Karabana, *Piztu ltxaropena* lelopean. Eskualdean, Tolosaldea Sahararekin elkartea ari da aurrera eramaten janari bilketa. Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak utzi behar dira, udaletxeetan eta supermerkatuetan.
■ **Tolosa.** Bide Ertzean musika talde tolosarrak bere hamar urteko ibilbidea ospatzeko zuzeneko CD-DVD bat grabatuko du 22:00etatik aurrera Leidor aretoan, ostiralean, hilaren 16an. Gazteriako sms zerbitzuan lagun bati alta emanez gero, sarrera bat doan lortu daiteke. www.tolosakoudala.org/sms/ helbidean edota gazteria@tolosakoudala.net e-mailera idatzita.
■ **Tolosa.** Martxoko hauteskunde-erarako hautesle zerrendak ikusgai daude udaletxeako beheko solairuan, erreklamazioak egin ahal izateko.
■ **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-teak 75 urte betetzen ditu aurten, eta argazki zahar eta berrien erakusketa ari da prestatzen eta horretarako materiala biltzen ari dira. Informazioa 655 73 87 39 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azkarrenak hondar gainean

Zizurkil » Asier Mujika zizurkildarrak Ondarretako lasterketa irabazi du Jose Manuel Iriarte leaburuarraren zaldiarekin.

ERREDAKZIOA

Asier Mujika zizurkildarrak irabazi zuen igandean Donostiako Ondarreta hondartzan jokaturako zaldi lasterketa. Horrelako proba batean inoiz aritu gabeko zaldiarekin irabazi zuen, Jose Manuel Iriarte leaburuarrarena. Hain justu, Mujika eta Iriarteren artean prestatu dute zaldia eta ikusi den bezala, bikain erantzun die.

Alde dexentez irabazi zuen Mujikak lasterketa. 14 zaldik parte hartu zuten eta hiru kanporaketa jokatu ziren. Bakoitzetik bi zaldi sailkatu ziren finalerako. «Kanporaketan ondo sailkatu nintzen, arazorik gabe», azaldu du Mujikak.

Finalean hiru itzuli eman behar zizkieten Ondarretan prestatutako zirkuituari. «Bigarren itzulia hasterako abantaila handia zuen bigarren postuan zegoenarekiko», dio Mujikak. Azkenean, nahiko erraz eramane zuten garaipena.

Hasiberria

Esan bezala, estreinako lasterketa zuen zaldiak. «Ez genekien nola erantzungo zuen eta egia esan oso ondo joan da dena», azaldu du zaldun zizurkildarrak. «Oso gustura gaude Iriarte eta biok ikusita nola



Mujika, lasterketaren une batean eta saria jasotzen. HITZA

erantzun duen zaldiak». Hurrengo lasterketa Getarian izango dute, datorren igandean, eta gogotsu daude biak hango lasterketan zaldiak nola erantzungo duen ikusteko.

Sariak

Asier Mujikaren ondoren Santi Telleria lasarterra eta Xabin Lazkano getariarra sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuan. Jende ugari izan zen proba ikusten, eguraldia ere ona atera zelako. Aurreko egunetan elurra bota bazuen ere Gipuzkoako hiriburuan, igandeko elurrik ez zegoen hondartzan. «Hondarra oso ondo zegoen lasterketarako», azaldu du zizurkildarrak.

Mujikak 180 euro, txapela eta garaikurra eramane zuten. Bigarrena izan zen Telleriak garaikurra eta 150 euro poltsikoratu zituen. Lazkanok 120 euro eta garaikurra jaso zituen. Horrez gain, antolatzaile lanetan aritzen diren Antiguako Jai Batzordeak 60 euroko dieta eman zuten parte hartzaile guztiei. Zaldientzako bi pentsu zaku ere eman zizkieten.

Donostian garaipena lortu ondoren zaldun zizurkildarra eta jabe leaburuarra zain daude igandea noiz etorriko, aurrerantzean zaldi hasiberriak zer emango duen ikusteko. Baliteke igande honetako erakustaldiaren ondoren, aurkari oso kontuan hartu beharreko bikotea osatzea datozen lasterketetan.

LIBURUA SALGAI

Salmenta:
Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140 €
-----------------	--------------------

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan,
- Ibarako Lurdes liburudendan,
- Villabonako Basajaun liburudendan.

1936KO GERRAKO
OROITZAPENAK
Tolosaldean eta Leitzaldean

ARANZADI
galtzaundi
hitza